EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIA
AGENCIA DE CALIDAD DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO
UNIBASQ

| | |
|---|---|
| **IRAGARKIA**, ondoren adierazten den poltsa bat dagoela argitara ematen duena, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzian aldi baterako lan-kontratuak betetzeko. | **ANUNCIO** por el que se hace público la existencia de una bolsa que se indica a continuación para ser desempeñada con carácter laboral temporal en Unibasq-Agencia de Calidad del Sistema Universitario Vasco. |
| **1. DEIALDIAREN XEDEA**<br><br>Deialdi honen xedea da, lehiaketa bidez, UNIBASQeko lan-kontratuko langileen plantillan **Unibertsitate-Kalitatea ebaluatzeko Teknikarien** aldi baterako lan-poltsa bat betetzea.<br><br>Plazak urtean 42.628 euro gordineko ordainsaria du.<br><br>Kokapena: UNIBASQen egoitzan (Vitoria-Gasteiz).<br><br>Proiektuaren zereginak Urteko Kudeaketa Planaren arabera eta, hala badagokio, UNIBASQ-en barne-prozeduren arabera egingo dira.<br><br>**2.- IRAUPENA**<br><br>Kontratuaren iraupena aldi baterakoa izango da, eta une horretan eskatzen diren premien araberakoa.<br><br>**3.- ZEREGINAK**<br><br>Honako hauek dira deialdi honetako obra edo zerbitzuko zereginak, besteak beste:<br><br>• Ebaluazio-prozesuak koordinatu eta kudeatzen dituzten pertsonei beren eginkizunak betetzen laguntzea. • Ebaluazio-prozesuak kudeatzen laguntzea, helarazten zaizkien jarraibideen arabera. • Ebaluatzaileei aholkularitza eta laguntza teknikoa eskaintzea, lan-dokumentuak landuz. • Txosten teknikoak egitea. • Programen metaebaluazioak egitea. • Ikasleei eta ebaluazio-lanak egiten dituzten teknikariei zuzendutako prestakuntza-tailerretan parte hartzea. • Ebaluazio-txostenak aztertzea eta emaitzak idazteko eta aurkezteko irizpide homogeneoak ezartzea. • Aplikazio informatikoa diseinatzea, kudeatzea eta jarraipena egitea. • Ebaluazio-prozesuekin zerikusia duen beste edozein. | **1.-OBJETO DE LA CONVOCATORIA**<br><br>Es objeto de esta convocatoria la provisión, mediante el sistema de concurso de una **bolsa de trabajo** temporal de **Técnico/a de Evaluación de la Calidad Universitaria** en la plantilla de personal laboral de UNIBASQ.<br><br>La plaza tiene asignada una remuneración de 42.628 euros brutos anuales.<br><br>**Localización:** En la sede de UNIBASQ (Vitoria-Gasteiz).<br><br>Las tareas del proyecto se realizarán de acuerdo con el Plan Anual de Gestión y conforme, en su caso, a los procedimientos internos de UNIBASQ.<br><br>**2.-DURACIÓN**<br><br>La duración del contrato será temporal y en función de las necesidades requeridas en ese momento.<br><br>**3.- TAREAS**<br><br>Son tareas de la obra o servicio de esta convocatoria, entre otras, las siguientes:<br><br>• Asistir en el ejercicio de sus funciones a las personas que realicen las tareas de coordinación y gestión de los procesos de evaluación. • Colaborar en las tareas de gestión de los procesos de evaluación, de conformidad con las directrices que se les trasladen. • Ofrecer asesoramiento y apoyo técnico a los evaluadores elaborando los documentos de trabajo. • Elaborar informes técnicos. • Realizar metaevaluaciones de los diferentes programas. • Participar en los talleres formativos dirigidos al alumnado y al personal técnico que desarrolla las tareas de evaluación. • Analizar los informes de evaluación y establecer criterios homogéneos de redacción y presentación de resultados. • Diseñar, gestionar y realizar el seguimiento de la aplicación informática. • Cualquier otra que tenga relación con los procesos de evaluación. |

| | |
|---|---|
| **4.- BETEKIZUN ESPEZIFIKOAK** | **4. - REQUISITOS ESPECÍFICOS** |
| 4.1. Unibertsitateko lizentziatura- edo gradu-titulazioa diziplina hauetakoren batean: Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza; Ekonomia; Zuzenbidea edo Soziologia. | 4.1. Titulación en alguna de las siguientes disciplinas universitarias de licenciatura o grado: Administración y Dirección de Empresas; Economía; Derecho o Sociología. |
| 4.2. Euskararen ezagutza, C1 maila, ziurtagiri ofizialaren bidez egiaztatuta edo maila baliokidea egiaztatuta beste bide batzuen bidez. | 4.2. Conocimientos de Euskara nivel C1 acreditado mediante certificado oficial o nivel equivalente acreditable por otros medios. |
| 4.3. Europar Batasuneko estatu kideren bateko herritartasuna izatea, edo espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako herritarren ezkontidea izatea, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude, bai eta haien ondorengoena eta ezkontidearena ere, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude, hogeita bat urtetik beherakoak edo adin horretatik gorakoak badira, edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatu behar bada, Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuan zehaztutako moduan, edo Espainian legezko bizilekua eta lan-baimena duten atzerritarrak badira. | 4.3. Tener la nacionalidad de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea o ser cónyuge de los españoles y de los nacionales de otros Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no estén separados de derecho y a sus descendientes y a los de su cónyuge siempre que no estén separados de derecho, sean menores de veintiún años o mayores de dicha edad dependientes o ser de algún otro Estado en que, en virtud de tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el Estado español, sea de aplicación la libre circulación de trabajadores en los términos en que ésta se halla definida en el Tratado Constitutivo de la Comunidad Europea o ser extranjeros con residencia legal en España y permiso de trabajo. |
| Hautagai-zerrendek baldintza subjektiboak bete behar dituzte iraupen jakineko lan-kontratu bat sinatu ahal izateko, Langileen Estatutuaren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, egokitasun subjektiboa aurreikusitako iraupenaren eta kontratu-motaren arabera. | Las candidaturas tienen que cumplir los requisitos subjetivos para poder firmar un contrato de trabajo de duración determinada al amparo de lo establecido en el artículo 15 del Estatuto de los Trabajadores, idoneidad subjetiva en consideración a la duración prevista y tipo de contrato. |
| **5.- HAUTAKETA-PROZESUA** | **5.- PROCESO DE SELECCIÓN** |
| **Prestakuntza-ezagutza orokorrak:** | **Conocimientos formativos generales:** |
| Eskuratutako unibertsitate-ezagutza orokorrak baloratuko dira, 20 puntu gehienez, ondorio horietarako egiaztatutako eta, hala badagokio, adierazitako graduko unibertsitate-titulurako batez besteko kalifikazioaren arabera. Puntuazioa zentzu erlatiboan eta proportzionaltasun zuzenarekin emango da, hau da, eskatzailearen batez besteko nota kontuan hartuta eta aurkeztutako eskaeren batez besteko gainerako notekiko haztatuta. | Se valorarán los conocimientos generales universitarios adquiridos hasta un máximo de 20 puntos en función de la calificación media para la titulación universitaria de Grado acreditada y señalada, en su caso, a estos efectos. La puntuación se otorgará en sentido relativo y con proporcionalidad directa, es decir, tomando en cuenta la nota media de la persona solicitante y ponderándola respecto al resto de notas medias de las solicitudes presentadas. |

| | |
|---|---|
| **Prestakuntza-ezagutza espezifikoak**: | **Conocimientos formativos específicos**: |
| Unibertsitate-kalitatea bermatzearekin lotutako ezagutza espezifikoak baloratuko dira gehienez ere 15 puntu egiaztatutako unibertsitate-titulazioetarako, honako honen arabera: | Se valorarán los conocimientos específicos relacionados con el aseguramiento de la calidad universitaria hasta un máximo de 15 puntos para las titulaciones universitarias acreditadas, conforme a lo siguiente: |
| - Gehienez ere 7 puntu, guztira, unibertsitateen kanpo kalitate-ziurtapenari buruz edo alor horri buruz baliokideak diren Unibertsitate-masterreko titulu bat edo batzuk egiaztatzeagatik. | - Hasta un máximo de 7 puntos, en su totalidad, por la acreditación de uno o de varios títulos de Máster Universitario sobre aseguramiento externo de la calidad universitaria o asimilables. |
| - Gehienez ere 5 puntu, guztira, unibertsitateen kanpo kalitate-ziurtapenari buruz edo alor horri buruz baliokideak diren Etengabeko Prestakuntzako Master titulu bat edo batzuk edo dagokien baliokideak egiaztatzeagatik. | - Hasta un máximo de 5 puntos, en su totalidad, por la acreditación de títulos de Máster de Formación Permanente o equivalente sobre aseguramiento externo de la calidad universitaria o asimilables. |
| - Gehienez ere 3 puntu, guztira, unibertsitateen kanpo kalitate-ziurtapenari buruz edo alor horri buruz baliokideak diren Espezializazio-diploma titulu bat edo dagokien baliokideak egiaztatzeagatik. | - Hasta un máximo de 3 puntos, en su totalidad, por la acreditación de un título o de títulos de Diploma de Especialización o equivalente/s sobre aseguramiento externo de la calidad universitaria o asimilables. |
| - Gehienez ere 2 puntu, guztira, unibertsitateen kanpo kalitate-ziurtapenari buruz edo alor horri buruz baliokideak diren Aditu-diplomaren titulu bat edo batzuk edo baliokidetza duen bestelako formazioren bat egiaztatzeagatik. | - Hasta un máximo de 2 puntos, en su totalidad, por la acreditación de un título o de títulos de Diploma de Experto u otra formación equivalente sobre aseguramiento externo de la calidad universitaria o asimilables. |
| Egiaztatzeko modua: titulu, diploma, ziurtagiri, espediente akademiko edo bestelako egiaztagirien kopia. | Forma de acreditación: copia de los títulos, diplomas, certificados, expedientes académicos u otra documentación acreditativa correspondiente. |
| **Lanbide-esperientzia**: | **Experiencia Profesional**: |
| Unibertsitateko kalitatea bermatzeko arloan edo arlo horri buruz baliokidetza ezar daitekeen teknikari-lanpostuetan izandako esperientzia espezifikoagatik 25 puntu emango dira gehienez: 0,125 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko. | Se valorará hasta con 25 puntos la experiencia específica en el desempeño de puestos de técnico o técnica en el área de aseguramiento de la calidad universitaria o asimilables, a razón de 0,125 puntos por mes trabajado. |
| Hori justifikatzeko, izangaiak lan-esperientziaren banakapena aurkeztu beharko du, betetako eginkizunak adierazita, enpresaren ziurtagiriaren edo dokumentu baliokidearen bidez. Gizarte Segurantzaren lan-bizitzaren txostena entregatu beharko da. | Al objeto de su justificación, la persona candidata deberá presentar el desglose de experiencia en los distintos trabajos, indicando las funciones desempeñadas, mediante certificado de empresa o documento equivalente. Será necesaria la entrega del Informe de vida laboral de la Seguridad Social. |
| Esperientzia profesional gisa baloratu ahal | Se podrá valorar como experiencia profesional |

| | |
|---|---|
| izango da unibertsitate-kalitatea ebaluatzeko prozeduretan edo parekagarrietan ebaluatzaile gisa parte hartzea (adibidez, bikaintasunaren ebaluazio-programa edo -klubetako ebaluazioa, EUSKALITen ebaluazio-kluba delakoan, adibidez). | la participación como evaluadora o evaluador en procedimientos de evaluación de la calidad universitaria o asimilables (por ejemplo, la evaluación en programas o clubes de evaluación de la excelencia como el club de evaluación de EUSKALIT). |
| <u>Ingelesa</u>: | <u>Inglés</u>: |
| 5 puntu emango zaizkio ezagutza-mailari C1era arte, baremo honen arabera: | Se valorará hasta con 5 puntos el nivel de conocimiento hasta un C1, según el siguiente baremo: |
| B2: 2,5 puntu / C1 edo handiagoa: 5 puntu. | B2: 2,5 puntos / C1 o superior: 5 puntos. |
| Maila hori dagokion erakunde ofizialaren ziurtagiri akademikoaren bidez egiaztatuko da. | Dicho nivel se acreditará mediante certificación académica de la entidad oficial correspondiente. |
| <u>Ezagutza informatiko aurreratuak:</u> | <u>Conocimientos informáticos avanzados</u>: |
| Gehienez 5 punturekin baloratuko dira ezagutza informatiko aurreratuak; ezagutza horiek IT Txartelaren ziurtapen-sistemaren bidez edo sistema baliokideen bidez egiaztatuko dira, eta merezimenduak alegatzeko epean alegatu beharko dira. | Se valorarán hasta con 5 puntos los conocimientos de informática avanzados; se acreditarán mediante el sistema de certificación IT Txartela o equivalentes y deberán ser alegados en el plazo de alegación de méritos. |
| <u>Gaitasunei buruzko elkarrizketa</u>: | <u>Entrevista competencial</u>: |
| Aurreko ataletan puntuazio handiena lortu duten lehenengo 15 pertsonei elkarrizketa bat egingo zaie. Gehienez 30 puntu emango dira. Puntuazioetan berdinketa gertatuz gero, notaren arabera ebatziko da ondorio horietarako egiaztatutako eta, hala badagokio, adierazitako graduko unibertsitate-titulazioa. | Se valorará hasta con 30 puntos y consistirá en la realización de una entrevista a las 15 primeras personas con mayor puntuación en el conjunto de apartados anteriores; en caso de empate en las puntuaciones el desempate se resolverá en función de la nota la titulación universitaria de Grado acreditada y señalada, en su caso, a estos efectos. |
| Eskatzaileek bete beharreko eginkizunekin zerikusia duten ezaugarriak, gaitasunak eta ezagutza teknikoak modu zehatzean ebaluatu eta bereiziko dira. | Se evaluará y discriminará de forma matizada los rasgos, competencias y conocimientos técnicos relacionados con las funciones a desempeñar de las personas solicitantes. |
| Elkarrizketa hori kanpoko aholkularitza-enpresak egingo du. | Esta entrevista la realizará la consultora externa. |
| Gainera, hautagaiak gaitasunei buruzko gaitasun-nortasuneko proba bat egingo du, lanpostuan ahalik eta ondoen jarduteko. Elkarrizketa nortasun-proban lortutako informazioarekin osatuko da. | Además, la persona candidata realizará una prueba de personalidad competencial sobre aptitudes orientadas al óptimo desempeño del puesto. La entrevista se complementará con la información obtenida en la prueba de personalidad. |
| **6.- EPAIMAHAIA** | **6.- TRIBUNAL** |
| Unibasq-eko zuzendariak horretarako izendatutako epaimahai batek ebaluatuko du prozedura. Epaimahai osatzerakoan, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak | La evaluación del procedimiento se llevará a cabo por un Tribunal nombrado al efecto por el Director de Unibasq. En su composición se |

| | |
|---|---|
| onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 60. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio. | atenderá a lo dispuesto en el artículo 60 del Texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, aprobado por RDL 5/2015, de 30 de octubre. |
| Epaimahaia gutxienez 3 kidek osatuko dute, eta epaimahaikide bakoitzak bere izenean jardungo du. Epaimahaiaren osaerak trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten gizon eta emakumeen arteko ordezkaritza orekatua bermatuko du, eta inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioetara egokituko da. | El Tribunal estará compuesto por un mínimo de 3 miembros, perteneciendo al mismo a título individual. La composición del Tribunal garantizará una representación equilibrada entre hombres y mujeres con capacitación, competencia y preparación adecuada y se ajustará a los principios de imparcialidad y profesionalidad. |
| a) Epaimahaikideek kasuan kasuko kategorian sartzeko eskatzen den maila akademiko bereko edo goragoko titulazioa izan beharko dute. | a) Los miembros del Tribunal deberán encontrarse en posesión de titulación igual o superior nivel académico que la exigida para el acceso a la categoría que se trate. |
| b) Hizpidea bai baina botorik izango ez dutela uste duten aholkulariak ere sartu ahal izango dira. Beren jarduna epaimahaiari bere espezialitate teknikoetan laguntzera mugatuko da, eta epaimahaikideei eskatzen zaien titulazio-baldintza bete beharko dute. | b) Se podrán incorporar los asesores que se consideren que tendrán voz, pero no voto, limitando su actuación a colaborar con el Tribunal en el ejercicio de sus especialidades técnicas, debiendo reunir el requisito de titulación exigido a las personas integrantes del Tribunal. |
| c) Idazkariak deituta bilduko da, lehendakariak hala aginduta, eta behar bezala eratzeko, beharrezkoa izango da lehendakaria eta idazkaria bertaratzea. | c) Se reunirá a convocatoria de su secretario/a por orden de su presidente/a siendo necesario para su válida constitución la asistencia del presidente/a y secretario/a. |
| d) Erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira. Berdinketak lehendakariaren kalitatezko botoaren bidez ebatziko dira. Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa, idazkaria barne. | d) Los acuerdos serán adoptados por mayoría de votos. Los empates se resolverán por el voto de calidad del presidente/a. Todos los miembros del Tribunal tendrán voz y voto, incluido el secretario/a. |
| e) Ahalmenak: epaimahaiak autonomia funtzional osoz jardungo du, prozeduraren legezkotasuna zainduz eta haren objektibotasuna bermatzeaz arduratuz. Era berean, oinarriak aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu, eta horietan aurreikusi gabeko kasuei buruz hartu beharreko irizpideak ezarriko ditu. | e) Facultades: el Tribunal actuará con plena autonomía funcional, velando por la legalidad del procedimiento y siendo responsable de garantizar su objetividad. Asimismo, resolverá todas las dudas que surjan en la aplicación de las bases, estableciendo los criterios que deban adoptarse en relación con los supuestos no previstos en ellos. |
| **7.- ESKABIDEAK AURKEZTEA** | **7.- PRESENTACION DE SOLICITUDES** |
| Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidea BAKARRIK web orriaren bidez (www.campo-ochandiano.com) aurkeztuko da. 6.791 erreferentziako eskaintzari erantzun beharko diote. | La solicitud para tomar parte en el proceso selectivo se presentará, EXCLUSIVAMENTE, a través de la página web (www.campo-ochandiano.com). Deberán responder a la oferta de Referencia 6.791. |
| Halaber, unibasq@campo-ochandiano.com helbide elektronikora bidali beharko dute | También deberán remitir por correo electrónico a: unibasq@campo-ochandiano.com la |

| | |
|---|---|
| derrigorrezko dokumentazio hau: | siguiente documentación obligatoria: |
| 1. "Eskabidea": deialdiaren oinarrietan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela adierazten duen eskabidea (horren eredua, Campo & Ochandianoko "Lan Eskaintzak" atalean, Erref. 6791). | 1. "Solicitud": Instancia de solicitud manifestando que reúnen todas y cada una de las condiciones exigidas en la Bases de la convocatoria (modelo de la misma en el apartado "Ofertas de Empleo" de Campo & Ochandiano Ref. 6791). |
| 2. NANaren edo agiri baliokidearen fotokopia. | 2. Fotocopia del DNI o documento equivalente. |
| 3. Curriculum vitaea. | 3. Curriculum vitae. |
| 4. Deialdian parte hartzeko eskatzen den titulazio ofizialaren kopia. | 4. Copia de la titulación oficial exigida para tomar parte en la convocatoria. |
| 5. Euskarako 3. hizkuntza-eskakizunaren edo baliokidearen titulazio ofizialaren kopia. | 5. Copia de la titulación oficial del perfil lingüístico 3 o equivalente de euskera. |
| **8.- AURKEZTEKO EPEA** | 8.- **PLAZO DE PRESENTACION** |
| Eskabideak aurkezteko eta merezimenduak ebaluatzeko agiriak aurkezteko epea 2024ko ekainaren 15eko 14:00etan amaituko da. | El plazo de presentación de solicitudes y entrega de documentación para meritar será hasta las 14:00 horas del día 15 de junio de 2024. |
| **9.- DATUEN BABESA** | **9.- PROTECCIÓN DE DATOS** |
| Interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak Unibasqek tratatuko dituela (helbidea: San Prudencio Kalea, 8, 01005 Vitoria-Gasteiz). «HAUTAKETA-PROZESUAK» tratamenduaren helburua da lanpostuak betetzeko langile-hautaketen prozedurak egitea, tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen arabera (Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legea eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua). Datuak zertarako bildu ziren, helburu hori betetzeko beharrezkoa den denboran gordeko dira datuak, bai eta helburu horren ondorioz eta datuen tratamenduaren ondorioz sor litezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran ere. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legeak hala behartu ezean. Datuetan sartzeko, datuak zuzendu eta ezabatzeko eta haien tratamendua mugatzeko edo tratamenduaren aurka egiteko eskubidea du interesdunak. Horretarako, idatzizko komunikazio bat bidali beharko dio tratamendua, eskubideak gauzatzeko prozeduraren bidez. 9 Halaber, eskubidea duzu erreklamazioak Datuak Babesteko Euskal Bulegoan aurkezteko, eta aukera duzu, baita ere, aurretik erreklamazioa jartzeko datuak | Se informa a la persona interesada de que sus datos personales serán tratados por Unibasq-Agencia de Calidad del Sistema Universitario Vasco con domicilio en C/ San Prudencio, 8, 01005 Vitoria – Gasteiz. La finalidad del tratamiento "PROCESOS SELECTIVOS" es la realización de procedimientos de selección de personal para la provisión de puestos, conforme al ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento (Ley 6/1989 de 6 de julio de la Función Pública Vasca y Real Decreto Legislativo 5/2015 de 30 de octubre por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público). Los datos se conservarán durante el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y para determinar las posibles responsabilidades que se pudieran derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los datos. No se cederán datos a terceros, salvo obligación legal. La persona interesada podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento dirigiendo una comunicación por escrito a la Responsable del tratamiento mediante el procedimiento de Ejercicio de derechos. Asimismo, tiene la potestad de dirigir cualquier reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos, o puede realizar una |

EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIA
AGENCIA DE CALIDAD DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO

| | |
|---|---|
| babesteko ordezkariari. Weborri honetan duzu informazio gehiago:<br><br>https://www.euskadi.eus/datu-babesaren-gainekoeskubideak-egikaritu/web01-tramite/eu/ | reclamación previa ante la Delegada de Protección de Datos. Podrá ampliar la información en el sitio web: https://www.euskadi.eus/ejercicio-de-derechos-proteccion-de-datos/web01-tramite/es/ |
| Parte hartzeko eskabidean, izangaiek berariazko baimena eman beharko dute beren datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzea onartzeko, 14. oinarrian aurreikusitako ondorioetarako. Datuen lagapen horren helburu bakarra da beste administrazio publiko batzuetatik lan-eskaintzak jaso ahal izatea, legez aurreikusitako baldintzetan. Izangaiaren onarpena berariaz jaso ezean, lagapenaren aurka dagoela ulertuko da.<br><br>Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 31n | En la solicitud de participación se requerirá el consentimiento expreso de las personas aspirantes para aceptar la cesión de sus datos a otras administraciones públicas a los efectos previstos en la base 14. Esta cesión de datos tendrá como única y exclusiva finalidad, que puedan recibir ofertas de empleo de otras administraciones públicas en los términos legalmente previstos, considerándose, de no constar expresamente la aceptación la persona aspirante, que se opone a dicha cesión.<br><br>En Vitoria-Gasteiz, a 31 de mayo de 2024 |
| | |

Iñaki Heras Saizarbitoria
Zuzendaria/Director